


| | |
|---|---|
| **Maiatzaren 15ean (igandea) 17:30ean Gipuzkoako erremonte txapelketako final aurrekoak jokatuko dira Pasai Antxoko Ibaiondo pilotalekuan** | **El próximo domingo día 15 de mayo a las 17:30h semifinales del la copa de Gipuzkoa de remonte en el fronón Ibaiondo de Pasai Antxo.** |
| Maiatzaren 3an Zumarragako Antigua ermitan aurkeztu zen Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2016ko Saria-VII Erremonte Koparen zazpigarren edizioa. | El pasado 3 de mayo en la Ermita del Antiguo de Zumárraga, se ha procedido a la presentación de la séptima edición del Gipuzkoako Foru Aldundiaren 2016ko Saria-VII Erremonte Kopa. |
| Jaime Agirrek, txapelketa antolatzen duen Erremonte Fundazioaren izenean, eskerrak eman dizkie bai Aldundiari eta bai txapelketako egoitza izango diren udalei, aurtengo txapelketa antolatzeko emandako laguntzagatik. | Jaime Aguirre, en representación de la Fundación Remonte (organizadora del torneo), ha agradecido tanto a la Diputación, como a los ayuntamientos, sedes del torneo, su colaboración para organizar la edición de este año |
| Frontoi motzean jokatzen den erremontearen egutegian jada oso finkatuta dago txapelketa hau, aurten zazpigarren urtea izango da. Txapelketaren sistema hau da: bi final aurreko jokatzen dira partidu bikoitzera, eta gero azken partidua. | Este año es la séptima edición del ya muy consolidado torneo en el calendario del remonte en frontón corto que se organiza con un sistema de dos semifinales a doble partido y el partido final. |
| Datorren igandean 17:30ean Antxoko Ibaiondo pilotaleku berrian jokatuko dira final aurreko partidak. Aurten Fundazioak Oarsoaldea bisitatu nahi zuen, eta Antxoko eta Errenteriako pilotalekuak izango dira Oarsoaldeko egoitzak. Bi udalerri horiez gain, beste | El frontón Ibaiondo de Pasai Antxo será sede de las semifinales que se disputaran el próximo domingo a las 17:30h en el nuevo frontón de Ibaiondo. Este año, la Fundación pretendía visitar la zona de Oarsoaldea y el frontón de este distrito pasaitarra |

| | |
|---|---|
| hauek ere izango dira txapelketaren egoitzak: Aizarnazabal, txapelketan parte hartuko duen Beñat Segurola aurrelariaren jaioterria, Zestoa eta Zumarraga (finala jokatuko da bertan). | junto con el de Errenteira serán las sedes de Oarsoaldea. Estos dos municipios, junto a Aizarnazábal, de donde es natural el delantero Beñat Segurola (uno de los remontistas que participan en el torneo), Zestoa y Zumárraga (donde se jugará la final) serán las otras sedes del torneo. |
| Aurtengo bikoteetan esperientzia duten profesionalekin erremontista gazteak nahastu dira. | Las parejas de este año son parejas en las que se mezcla la experiencia, con la presencia de las figuras del cuadro profesional, con el entusiasmo de los jóvenes remontistas del cuadro profesional. |
| Fundazioaren helburua da erremontista gazteei aukerak eskaintzea, haiek direlako espezialitatearen berehalako etorkizuna, eta gazteek esperientzia eta ospea hartzeko egungo espezialista onekin batera aritu behar dutelako txapelketa inportanteetan. | El objetivo que se persigue desde la Fundación es dar oportunidades a los jóvenes remontistas, ya que son el futuro inmediato en la especialidad, entendiendo que para que se conviertan en las nuevas figuras del remonte tienen que codearse con las actuales figuras, en torneos importantes como este. |
| Era berean, azpimarratu behar da bikote guztietan daudela Gipuzkoako erremontistak. Gainera, aurtengo edizioan 2016ko Sagardoaren Txapelketako bi bikote finalistek hartuko dute parte (Uterga-Aizpuru III eta Segurola-Endika). Izan ere, bikote horiek gaztetasunaren eta eskarmentuaren nahasketa interesgarria dute, eta, bestalde, txapelketa horretan maila handia erakutsi zuten.<br>Horiekin batera bikote gazte bat izango dugu (Gipuzkoakoa), Ansa II-Barrenetxea IV, eta azkenik Urriza-Zaldua bikotea. | También hay que destacar que en todas las parejas hay presencia de remontistas de Gipuzkoa. Además, la edición de este año, cuenta con las dos parejas finalistas del Torneo de la Sidra 2016 (Uterga-Aizpuru III y Segurola-Endika). La razón es que en las mismas había una mezcla muy interesante de juventud y veteranía, y, por otro lado, el gran nivel que habían dado en dicho torneo.<br>A ello, se suma una pareja muy joven (pareja 100% de Gipuzkoa) Ansa II-Barrenetxea IV, y finalmente, Urriza-Zaldúa. |
| Pasaiako Udaletik nabarmendu nahi dugu txapelketa hau oso garrantzitsua dela Gipuzkoan erremontea zabaltzeko eta aukera erakargarri bilakatzeko, eta pilota modalitate guztiak agerrarazteko. | Desde el Ayuntamiento de Pasaia queremos destacar la importancia del torneo para extender el remonte en Gipuzkoa y convertirlo en una alternativa atractiva de forma que todas las modalidades de pelota adquieran visibilidad. |